

Osasuna ♦ Nafarrak nagusi izan ziren jokoan, baina Numancia zuhurrago ibili zen erasoan

Ordezkoak ere ezinean

Titularren akats berberak egin zituzten atzo Taxoaren

Osasuna	Numancia
1	3

Osasuna.-Sanzol (Elia 69.m); Aitor Ocio, Aitor Fresan (Jusue 69.m), Iban Perez (Jose-txo 46.m), Alfonso (Sena 46.m), Josema; Angel (Antoñana 69.m), Arpon (Izquierdo 69.m), Moha (Ibon Larrazabal 58.m); Angel Luis (Trzeciak 46.m), Ziganda (Olles 69.m)

Numancia.- Raul (Rojas 84.m); Montoya, Gustavo, Culebras, Clavero; Octavio, Moran, Tito, Barbu (Iñaki Cenzano 86.m), Chispa Delgado (Julio 84.m), Ojeda (Jonatan 73.m).

GOLAK: 1-0: Angel Luisek (10.m) 1-1: Octaviok (11m) 1-2: Barbuk (20.m) 1-3: Barbuk (85.m)

ARBITROA: Armero Conde (Nafarra)

Asier Legarda-Ereño / Iruñea

OSASUNAKO ordezko jokalariek titularrek lehiaketa ofizialean egin ohi dituzten huts berberak egin zituzten atzo, Numanciaren aurka jokatu-tako adiskidantzazko partiduan.

Gorritxoek denbora gehiago izan zuten baloia oinetan, baina nagusitasun horrek ez zuen golik sartzeko balio. Dena den, Osasuna aurreratu zen markagailuan. Angel Luisek Ziganda eta Moharen artean eginiko jokaldi on bati amaiera ezin hobea eman zion, orpoz baloia sareetara bidaliz. Minutu bat geroago, ordea, Octaviok berdinketa lortu zuen Numanciarentzat.

Tentsiorik gabeko partidua izan arren, Osasunak baloia ongi mugitzen jarraitu zuen, baina saria Numanciak jaso zuen berriro ere, hogeigarren minutuan gorritxoek area er-

tzean eginiko falta bat, Barbuk maisuki jaurti ostean.

Angelek eta Zigandak atsendaldiaren aurretik, eta Trzeciak ondoren, berdinketaren gola gertu izan zuten, baina Numancia sendago agertu zen bigarren zatian (aldaketa gutxiago egin zuten), eta partidua amaitzeko bost minutu falta zirela Barbu errumaniarrak 1-3koa egin zuen Numanciarentzat.

Bi entrenatzaileak gustura

Atzoko norgehiagoka «entrenamendu bat bezala» hartu zuten bi entrenatzaileek, eta biak gustura azaldu ziren partidua ostean.

Paco Herreraren esanetan «horrelako partidua ez dira ezertarako kontutan hartu behar», eta irabaztea beti pozgarria bada ere, Herrerak «garaipena bere neurrian



Osasunako Josema, atzo, Numanciako jokalariei batekin lehian.

baloratu behar» dela esan zuen, «Osasunak baloia denbora gehiago edukitzeaz gain, hainbat unetan hobeto jokatu duela» aitortu zuela rik.

Lotinak ere ondo ikusi zuen bere taldea «igandeetan pasatu ohi zaigun bezala ongi jokatu arren irabazteko

gauza izan ez arren». Meñakarrak Trzeciak lana nabarmendu zuen, eta «Santandererako deialdian egon daitekela» adierazi zuen.

Dena den, bi entrenatzaileentzat garrantzitsua «bi taldeak giro lasai batetan entrenatu ahal izan dutela» izan zen.

Ukondoan babes berezi bat jarrita bada ere, Alfredo hasi da korrika egiten

A.L. / Iruñea

ATZO goizeko entrenamenduko albisterik pozgarriena Alfredok eman zuen. Herenegun, Jorge Fernandez del Prado medikuak datorren astea arte korrika egiterik ez zuela adierazi arren, erdilari madrildarrak ez du minik, eta «lehenbailehen lan fisikoa-ekin hastea» erabaki du.

Alfredok Valladoliden aurkako partiduan hartu zuen min. Eusebioekin tupust egin ondoren lurre-ra era txarrean erori eta ukondoan haustura egin zuen. Hilabete inguru igeltsuarekin egin beharko zituela uste bazen ere, hamabost egun egin ditu, eta osatze prozesua bide onetik doa. Dena den, oraingoz hasieran emandako osatze epeei aurre hartu badie ere, beste hilabete egin beharko du gutxienik, futbol zelaietatik at.

Alfredo baikor agertu zen, «asteartean igeltsua kendu zidatenean min handia hartzen banuen ere, orain arazorik gabe egin bait dezaket korrika».

Beraz, bere burua «gizon garrantzitsutzat» ez duela esan arren, Alfredo lehenbailehen taldera itzultzeko lanean gogor ari da. Arratsalde bertan, taldekideek Numanciari aurre egiten zioten heinean, korrika aritu zen Taxoaren.

Athletic ♦ J. Etxeberriaren parte-hartzea kolokan dago oraindik

Larrazabal Valesen lekuan

Ramon Basaldua / Bilbo
AITOR LARRAZABALEK beteko du Oscar Valesen hutsunea Athleticen atzealdean, Celtaren aurka. Zuri-gorriek atzo Lezaman egin zuten entrenamenduan ikusitakoaren arabera, Txetxu Rojok Alkorta eta Larrazabal jarriko ditu atzealdearen erdialdean. Iñigo Larrainzarrek eta Asier Del Hornok osatuko dute atzealdea hegoaldean.

Zentral lanetan aritzea ez da berria Aitor Larrazabalentzat. Loiuko atzelariak zentral jardun zuen lehenengo taldera iritsi eta entrenatzaile

leek hegaleran eraman zuten arte.

Larrazabalek ez dio garrantzirik ematen erdian ala hegalean jokatzeari. Atzelaria bat dator Txetxu Rojok herenegun esandakoarekin, eta sekulako garrantzia eman dio Celtaren aurkako partiduari. «Taldea honek erakutsi du baduela gaitasunik sailkapenean gora egiteko. Gauzak horrela, garaipen bat behar dugu hiru puntuak lortu eta konfiantza eta lasaitasuna eskuratzeko, horixe baita oraintxe falta duguna», esan zuen Larrazabalek atzo.

Aurtengo Liga txapelketan dagoen parekotasuna azpimarratu zuen Athleticceko atzelariak. «Celtari irabazten badiogu, lau puntura izango dugu sailkapenean. Bederatzi jardunaldi baino ez dira jokatu, baina garbi geratu da sekulako parekotasuna dagoela. Hor dago Real Madrili eta Deportivori Sorian eta Vila-realen gertatu zaiena».

Bestalde, Rafa Alkorta ia guztiz erreperatuta dago, eta Joseba Etxeberriaren parte hartzea, berriz, kolokan dago oraindik.



SAN MAMES FUTBOL ZELAIA

Igandea, azaroak 12, 17:00etan

Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB R.C. GELTA

TXARTEL SALMENTA

TXARTELDEGIA: SAN MAMES STADIUMean

ostiralean, 17:30etatik 20:00etara,
larunbatean, 10:30etatik 13:30etara
eta 17:30etatik 20:00etara,
igandean 10:30etatik 13:00etara eta
15:30etatik aurrera.



Coche Oficial del
Athletic Club

